

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko uztailaren 18a

✕



Atzetik ateratako odol tantaren bidez neurtzen dute diabetikoek duten azukre kopurua.

JAGOBA MANTEROLA

Diabetikoentzako udalekua Garesen

■ 33 neska-mutil diabetiko daude egunotan Garesen hamabost eguneko oporraldia pasatzen. I motako diabetea dute, hau da, haien pankreasak ez du batere intsulinarik ekoizten; beraz, xiringen bidez sartu behar dute gorputzean, egunean hainbat aldiz. Hori dela eta, berezi samarra da Garesko udalekua, gazteek eta begiraleek ezezik —diabetikoak dira horiek ere—, lau erizanez eta

mediku batek osatzen baitute taldea. Diabetikoen dieta, intsulina eta egiten duten kirola kontrolatzea da haien betebeharra, bai eta diabetari buruz argibideak ematea ere, hezkuntza funtsezkoa baita diabetikoentzat. Horretaz aparte, beste edozein udaleku bezalakoa da Gareskoa, beste edozein udalekutako haurrak bezala ongi pasatzera joan baitira Gareskoak ere udalekura. ■

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Gero eta jende gehiago joaten da atzerira ikastera. Aurten unibertsitateko Erasmus programaren bidez hainbat ezagun egon da Bordelen, Londresen edo Erroman, eta datorren urtean ere, bertez hainbertze daude *turismoa* egiteko gogoz.

Ikasle denboran ez zaigu zail egiten hemendik alde egitea, egia erran gehienak joateko desiatzen daude: jende berria, giro berria, hizkuntza berria, aprobatu errazak, etxetik urruntzea... eta niretzat garrantzitsuena: badakidajala ikasturte baterako bakarrik izanen dela.

Etxea

Baina zer pasatzen da karrera bukatzean edo lana aurkitu nahi dugunean? Guk ikasi dugun horretan lan egiteko zortea izanez gero, gehienetan (edo beti) kanpora joan behar izaten dugu, gure herritik edo eskualdetik at, eta kasu anitzetan Euskal Herritik kanpora. Eta hori ez da hain gustura egiten. Anitzetan nahiago izaten dugu edozein lanetan ari baina etxe ondoan.

Ez dakit Euskal Herrian zenbateraino ote gauden prest gure biziko mugak irekitzeko; ez ote gaude sobera sustraiturik?

Gustura lanean aritzeko kanpora joan beharra tristea da, baina gure ohiko inguruetik ez banatzearen edozer gauzatan aritzea, edo, okerrago dena, gustukoa duguna bazterteza ez da xamurragoa. Ala bai?

Nik, ahal badut behinik behin, ez dut Euskal Herritik joateko asmorik; Lesakan bertan bizitzea ere gustatuko litzaidake, eta behin eskatzen hasita, Lesakan lana izatea izugarria izanen litzateke. Kotxea ez hartzeagatik diot batez ere; izan ere, hainbertze istripu gertatzen baita!X

Diabetikoentzako udalekua,
Garesen

Intsulina motxilan

Diabetikoentzako antolatutako udalekuan 33 neska-mutil daude egunotan Garesko Klaretarren ikastetxean



Zortzi eta hamasei urte bitarteko neska-mutilak bildu dira Garesen.

JAGOBA MANTEROLA

Edurne Elizondo / Gares

GARESKO Klaretarren ikastetxea jendez gamezka dago egunotan, nahiz eta ikasturtea aspaldi amaitu zen. Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabatik etorritako 33 neska-mutilek bete dute, bai eta haiekin batera allegatu diren bederatzi begiraleek, lau erizainek eta medikuak ere. Astearte arratsaldean, eguraldia lagun izan zuten, eta igerilekuan bainatzeko aukera izan zuten denek, neska-mutilek eta begiraleek. Beren artean ongi moldatzen direla ziurtatzeko aukera izan genuen, guztiak elkarrekin jolasean ikusi ondoren.

Ordubete lehenago, ordea, giroa ez zen hain lasaia. Begiraleak eta gaztetxoak eztabaida bizian harrapatu genituen, gauean zer egin ezin erabaki. Aritzek beldurrezko istorioak kontatzea proposatu zuen; Gorka begiraleak, berriz, ipuinak kontatu ordez, antzeztekoa.

Diabetikoen udalekuan, beraz, beste udaleku guztietan izaten diren eztabaidak izaten dira, diabetikoen udalekua, finean, beste edozein udaleku bezalakoa baita, ia-ia. Dieta, kirola eta xiringak dira ezberdintasuna ezartzen dutenak. David Quintas, begiralea, adibidez, udalekuan diabeti-

Hilaren 10etik datorren ostegunera bitartean, Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabako 33 neska-mutil diabetiko daude Garesko Klaretarren ikastetxean, oporraldia pasatzen. Aurren, dena den, ez da Garesen diabetikoentzat udalekua egiten duten lehen aldia, Gipuzkoa eta Bizkaiko diabetikoen elkarteek urte askotako esperientzia baitute jada halako ekitaldiak antolatzen. Gaur egun begirale diren gazte gehienek, adibidez, haurrak zirela parte hartu zuten lehen aldiz udalekuotan. Orain, beste neska-mutil diabetikoentzat eredu bilakatu dira.

ko ez diren bakanetakoa da —begirale gehienak ere, neska-mutilak bezala, bada—, eta, azpimarratu zuenez, «haurrak ez dira diabetiko direlako elkartzen, gurasoak lasaia gelditzeko baizik. Hau da, hemengo edozein neska-mutil diabetikoena ez den edozein udalekutara joan daiteke, inolako arazorik gabe».

Zortzi eta hamasei urte bitarteko neska-mutil diabetikoak hamabost egunez biltzeak, dena den, abantaila handiak ditu gazteon osasunarentzat, are gehiago haiekin diren begiraleak ere diabetikoak direla kontuan hartuta. Javi Hernandez gazte donostiarra da haieko bat. 22 urte ditu, eta 7 zituenetik da diabetiko. Begirale izan aurretik, udalekuotan parte hartu du hainbat urtez. Gipuzkoako Diabetikoen Elkarteak, hain zuzen, bederatzi urte daramatza halako oporraldiak prestatzen.

«Hasieran ez nintzen deusetaz konturatzen, eta gurasoek esaten

zidatena egin eta ematen zidatena jaten nuen. Hamar urte nituenean joan nintzen lehen aldiz diabetikoentzako udaleku batera, eta orduan konturatu nintzen gaixotasun hori zer den eta ongi egoteko zer egin behar den. Gaur egun bizimodu normala dut, ikasten dut, lagunekin ateratzen naiz...».

Javi Hernandezen ustez, udalekuko neska-mutilentzat oso garrantzitsua da begiraleak ere diabetiko izatea ere. «Gu ikustean, haiek ere gu bezalako bizimodu normala egin dezaketela konturatzen baitira. Azukrea neurtzeko ordua ailegatzen denean, adibidez, guk ere egiten dugu, eta haiek bezala, hipogluzemiak dauzkagu noizbehinka guk ere».

Egunean zehar azukrea neurtzeko egin beharreko kontrolak dira, hain zuzen, diabetikoentzako udalekuek dituzten bereiztasunetako bat. Eguna goizeko 08:30etan hasten da Garesko

Klaretarren ikastetxean, eta 09:00ak arte, eguneko lehenengo kontrola egiten dute denek. Ordu horretan gosaria hartu, eta 09:30etan, heziketa diabetologikoari buruzko klasea hasten da. Astelehenetik ostiralera eskaintzen diete haurrei medikuntza-taldeko kideek.

Gosaria hartu ondoren, beste edozein udalekutan egiten diren gauzak egiten dituzte Gareskoan ere: jokoak, ibilaldiak, tailerrak, eskulanak... Otorduak, ordea, gehiago dira diabetikoen udalekuan, gosaldia ondoren, hamaitzekoak, bazkaria, afaria eta 23:30etan bigarren afaria hartzen baitute, hau da, baso bat esne gailatekin. Eta otordu horietako bakoitzaren aurretik, azukrea neurtzeko kontrola egiten dute neska-mutil eta begiraleek. Kirola, halaber, oso garrantzitsua da egunotan Garesen diren haur eta gazteentzat, diabetikoen osasunarentzat funtsezkoa baita.

Udalekuan intsulina gutxiago • Diabetikoentzako udalekuek udako oporrak beste modu batean pasatzeko aukera eskaintzen diete neska-mutilei, baina, horretaz gain, badu beste helbururik, neska-mutilo diabetea zer den ongi erakustea, alegia. «Garrantzitsua da azukreak gora edo behera zergatik egiten duen jakitea, eta garrantzitsua da, batez ere, bakarrik ez zaudela jakitea. Eta hemen horretaz jabetzen dira haurrak, bakarrik ez daudelako konturatzen dira», azpimarratu du Javi Hernandezek.

Iritzi berekoa da Oskar Martin begiralea. Javi bezala, diabetikoa da Oskar ere, 12 urte zituenetik. Orain, 24 urteko gaztea da. Diabetek, dena den, ez dio bizitza gehiegi aldatu, eta gaixotasunaren ardua ongi eramaten duela azaldu digu. Halaber, diabetearen inguruan izan diren aurreapenak azpimarratu ditu Martinek: «Ni intsulina hartzen hasi nintzenean, adibidez, beirazkoak ziren xiringak, orain, berriz, plastikozkoak. Hasieran, halaber, ogia niretzat erabat debekatuta zegoela esan zidaten. Baina ez da horrela. Hemen, egun batean izozki eta guzti ematen diegu haurrei».

Egun batez dietaren zorrotztasuna alde batera uzten badute ere, janaria oso ongi kontrolatzen

Ezkaroze

327 kiloko harria jasotzen saiatuko da bihar Migeltxo Saralegi leitzarra

Ezkarozeko bestak direla-eta antolatu duten herri kirol jaialdia egingen du saioa

Migeltxo Saralegi harrijasotzaile leitzarra munduko errekorra hobetzen saiatuko da berriro bihar, Ezkarozen, arratsaldeko 19:15etan hasiko den herri kirol jaialdian. Saralegi 327 kiloko harria jasotzen saiatuko da, apirilaren 18an Beasainen 326koa jasoa ondoren.

Erredakzioa / Iruñea

HERRI KIROLAK oihartzun handia du aspalditik Ezkarozen. Zaraitzu bailarako herrian, 1969. urtean, jada, Eseberri familiak gonbidatuta, Astibiak lehen aizkora erakustaldia egin zuen herri horretan. Ondoren, beste herri kirolari asko ailegatu zen Ezkarozera, herriko jaietan urtero egiten zuten jaialdian parte hartzera: Mindegia, Arria II.a, Patxi eta Donato Larretxea, Mendizabal, Saralegi anaiak eta Iñaki Perurena, besteak beste.

Gaur egun ere, herri kirolak gabeko bestarik ez dago Ezkarozen. Horregatik, herri hori aukeratu du Migeltxo Saralegik errekorra hausten saiatzeko. Biharko jaialdian, dena den, izanen da besterik. Aizkolariei dagokienez, Arria V.a gipuzkoarra eta Vicente otsagierra ariko dira lehendabizi. Joan den martxoan apustua egin eta gipuzkoarrak irabazi zuen. Bihar, beraz, errebantzarako aukera izanen du Otsagikoak. Ruben Saralegi sei urteko leitzarrek aizkorarekin egiten dakiena erakutsiko du, halaber.

Biharko jaialdian, gainera,



327 kiloko harria jasotzen saiatuko da bihar Migeltxo Saralegi Ezkarozen.

Patxi Astibia Leitzako aizkolaria omenaldia eskainiko dio Ezkarozeko herriak, herri kirola han bultzatzeko egin duen lanagatik. Otsagabiako Muskildako Andra

Mari Dantza Taldeko kideek ere parte hartuko dute biharko herri kirol jaialdian, haien ikuskizuna eskainiko baitute Ezkarozeko herritarren aurrean.

eskainiko baitu plazan. Ondoren, zezen suzkoa aterako da. Goizaldeko 01:00ean, azkenik, *Pobre de mi* abestuko dute, aurtengo Ezkarozeko jaietako amaiera emanez. X

Lizarra

Antzinako Merkatua bihar zabalduko dute herrian

■ Igandera bitartean Erdi Aroko giroa nagusi

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRAKO UDALEKO Industria eta Merkataritza Batzordeari esker, Antzinako Merkatuak bigarren aldiz iritsiko dira asteburuan herrira. Feria eguerdian zabalduko dute bihar, Lizarrako Foruen plazan, eta gaueko 22:00ak arte egonen da zabalik, arratsaldeko 15:00etatik 16:30ak arte atsedenaldia egin ondoren. Igandean ordutegi bera izanen du merkatuak.

Asteburuan zehar, beraz, Erdi Aroko giroa izanen da nagusi Lizarrako kaleetan. Nafarroako, Euskal Herri osoko eta estatuko zenbait herrialdeko artisauak

izanen dira ferian, haien produktuak erakutsi eta saltzeko asmoz. Antzinako Merkatuak, hain zuzen, Nafarroako Artisanu Elikagaien Elkarteak antolatzen ditu.

Mota askotako produktuak ikusi ahal izanen dira Lizarrako ferian: Erronkari eta Idiazabal gaztak, ahate produktuak, eztiak, pastak eta Euskal Herriko beste hainbat.

Halaber, hainbat ekitaldi izanen dira asteburuan ferian bertan eta feriarekin osagarri. Malabaristak, ipuin kontalariak, aktoreak eta aztiak izanen dira Lizarrako ferian protagonista, besteak beste. X

Tutera

Ebroko Jaitsiera egingen dute bihar arratsaldean

■ Bederatzigarren ekitaldia izanen da aurtengoa

Erredakzioa / Iruñea

EBROKO JAITSIERA ospatuko dute larunbatean, baltsetan, bederatzigarren aldiz. Tuterako Alde Zaharreko Auzokideen Elkarteak antolatu du, *Ibai garbi, bizi eta osasuntsu baten alde* lelopean. Elkarteak herriko talde eta kolektibo guztiei zabaldu die jaitsieran parte hartzeko deialdia.

Urtero legez, Adapoen Ibarbasotik abiatuko dira partaideak arratsaldeko 16:30etan, eta 20:00ak aldera iritsiko dira Ebroko zubira. Antolatzaileek gogorarazi nahi izan dute Ebroko Jaitsiera ez dela lasterketa

edo lehiaketa bat, «denok elkarrekin besta eguna pasatu eta ibai garbi bat aldarrikatzeko aukera» baizik. Partaide guztiak Ebroko zubira ailegatzean, txistorra jatea egingen dute.

Alde Zaharreko Auzokideen Elkarteak Ebro ibaiak arazo larriak dituela gogora ekarri nahi izan du bederatzigarren jaitsieraren atarian. Alde batetik, Geroñako zentral nuklearraren jorkabidea salatu dute, «Ebrotik hartu eta Ebrora botatzen baitu behar duen ura». Elkarteak zentrala ixteko eskatu du. Halaber, Itoizko urtegiaren aurka agertu da Tuterako Alde Zaharreko Auzokideen Elkarteak. X

Arantza

Nafarroako Trikitilarien Lehiaketa abuztuaren 15ean abiatuko da

■ Zortzi bikote pasako dira finalera

Erredakzioa / Iruñea

IAZ BEZALA, Nafarroako trikitilariak euren trebezia erakusteko aukera izanen dute aurtengoa. Nafarroako Trikitilari Txapelketa laster abiatuko baita. Aurtengoa laugarren ekitaldia izanen da. Zehazki abuztuaren 15ean izanen da lehen aurrekapanaketa Arantzako herrian. Bigarrena Goizuetan egingen dute, hilabete bereko 17an. Bi saio horietatik zortzi bikote aukeratu dituzte epaimahaiak finalean parte hartzeko, puntu gehien lortzen duten bikoteak, alegia.

Nafarroako gazteen artean gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari da trikitixa, eta, hori dela eta, urtetik urtera gora egin du partehartzaileen kopuruak. Baita aurtengoa ere. Hori dela eta, hainbat erabaki hartu dute antolatzaileek. Alde batetik, aurtengoa panderole edo trikitilari batek ezin izanen du bi bikote ezberdinekin parte hartu lehiaketan. Eta, bestetik, partaide guztiek baserritarrez jantzita agertu beharko dute saioetara.

Bikote bakoitzak jo beharko dituen piezei dagokienez, bestalde, ohikoak izanen dira: Bidekoa, Trikitixa, Porrusaldia, Fandangoa eta Arin-arina. Hilabete eskas falta da Nafarroako Laugarren Trikitilari Txapelketari hasiera emateko. Arantzako abuztuaren 15ean entzungo dira aurtengo lehiaketako lehen doinuak. X

Olazti

Udalak Dantza Txapelketa antolatu du hilaren 26rako

Erredakzioa / Iruñea

OLAZTIKO UDALAK Lehenengo Dantza Txapelketa antolatu du. Hilaren 26an egingen dute, eta Udalak herritarrei parte hartzeko deialdia egin die. Fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dute partaideek, bikoteak. Udalak sariak banatuko ditu irabazleentzat.

Aurtengoa herrian antolatzen duten lehen dantza txapelketa bada ere, iaz erakustaldia egin zuten, eta herriko bikoteek dakiten guztia erakusteko aukera izan zuten. Aurtengoa, beraz, beste urrats bat egin du Udalak, dantzarako zaletasuna herritarren artean piztu eta bultzatzeko asmoz. Izan ere, lehen herriak dantza taldea bazuen ere, gaur egun ez du, orain dela urte batzuk desagertu baitzen. X

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Lizarra: Extremoduro taldeak kontzertua eskainiko du bihar Lizarralde pabilioian. Aurretik, Flying Rebollos taldeak joko du. Gaueko 22:00etan hasiko da kontzertua. Sarrerak 1.800 pezeta balio du.

Lodosa: Flitter eta Komak kontzertua eskainiko dute bihar zenplazan, 22:00etatik aurrera.

Elizondo: Otsondo 602 taldeak herrian joko du bihar.

ERAKUSKETAK

Erronkari: Nafarroako basoak izeneko erakusketa Bailarako Etxean dago ikusgai, eguerditik 14:00ak arte, eta 18:30etatik 20:30ak arte. Erronkariko Udalak, Nafarroako Gobernuak eta Erronkariko Bailarako Juntak antolatu dute.

Ihunberri: ardidibidei buruzko erabakusketa zabalduko dute gaur, eta ikusgai izanen da hilaren 29ra bitartean, Udalak antolatuta.

Erriberri: Jauregian Maite Berrezoren margoak dira ikusgai, hilaren 27ra bitartean. Goizeko 10:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 20:00ak arte dago zabalik.

DANTZA

Tafalla: Asteazken, ostegun eta ostiralean Nazioarteko Seigarren Dantza Folklorikoaren Jaialdia ospatuko dute. Foruen plazan, gaueko 22:00etatik aurrera.

ANTZERKIA

Zangoza: Calambur kale antzerki taldeak *Para gracias... las vuestras* lana antzertuko du gaur, 19:45etatik aurrera.

Allo: TEN-Pinpilinpauza taldeak *La canción del bandido* eskainiko du igandean, gaueko 22:00etatik aurrera.

Zugarramurdi: Kilimiliklik taldearen *Sorginak* ikuskizuna irailaren 15era bitartean ikus daiteke, taldeak herrian duen antzokian.

LEHIAKETAK

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolak Umeentzako Antzerki Tes-tuen VI. Lehiaketa antolatu du. Hemezortzi urtetik gorakoek parte har dezakete. Egile bakoitzak argitaratu gabeko hiru testu aurkeztu ahal izanen ditu gehienez, gaztelaniaz edo euskaraz. Parte hartu nahi duenak Nafarroako Antzerki Eskolara (Iruñeko San Agustín, 5) bidali behar ditu lanak, abuztuaren lehen baimo lehen.

Atarrabia: Jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak. Lanak abuztuaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira herriko Kultur Etxean. Kale Nagusiko 67.ean, alegia.

nafar kronika

Pello Goñi

Oihua

Ezker-eskuin begiraten dut eta betiko aurpegiak ikusten ditut nor bere heda-bideetan goratua, betiko lekuetan, onak eta gaiztoak, asaldaturik, elkari irainka, oinazean behin betikoz kokaturik, Edward Munchen *Oihua*-n bezala. Ene inguruan begiratu eta ez dut mugimendurik ikusten, argazki bat baizik, sufrimenduaren argazkia, ankerkeriarena, iluntasunaren irudi mugigaitza, bertigoa eragiten duena, eta ez zait gustatzen. Beldur naiz.

Beldur naiz, hastapenetik dena berdina izan delakoz, alegia Genesi denboratik gogorkeria nola edo hala nagusi izan delakoz. Indarra desadostasunak konpontzeko, indarra herriak menderatzeko, indarra aldamenekoa zapaltze-

ko... Cainek hiltzeko asmotan hezurra jaso zuenetik gauzak apenas aldatu diren, eta ez du ematen aurrerantzean gehiegi aldatuko direnik. Gizakiak ez du sobera aurreratu, lehoia bezala segitzen du, gizartean bizitzeko gai baina anaia ere hilko lukeena jana tartean balego. Eta janaren tokian jar itzazue ideiak, abertzalekeriak —guztiak—, alderdikeriak, interesak, dirua...

Inork ez du urratsik egiten arestian aipaturiko argazkia mugi dadin, inork ez du amore ematen, ezta pittin bat ere. Argazki beltz hori aldatzeko ez du ja ere laguntzen Blanicorenak, ezta horren *ajeak* ere. Kantuak dioen bezala, «gogorkeriak diraueno ez gara libre izanen». Edo ez da horrela?



Istilu larriak izan ziren sanferminetan, eta zaurituak ugari izan ziren.

JAGOBA MANTEROLA

asteko pertsonaiak



Javier Chourraut Iruñeko alkatea

■ Javier Chourraut Iruñeko alkatea Udalak peñei ematen dizkien diru laguntzak aztertzeko asmoa plazaratu zuen, aurtengo sanfermin nahasi-en balantzea egiteko emandako prentsaurrekoan. Alkatea haserre dago peñek ez dutelako Miguel Angel Blanco Ermuko zinegotziaren hilketa salatu. Peñek erantzun dute haiek sekula ez dutela hilketa bat salatu, alde batekoa zein bestekoa izan. Espero dezagun heldu den urteko sanferminetarako tira-bira horiek guztiak ahantzirik egotea; izan ere, Chourrautek berak aitortu zuenez, peñak sanferminetako zati garrantzitsu bat dira, eta benetan kezagarria litzateke haien eta Udalaren artean desadostasun konponezinak sortzea.



Iñaki Otsoa de Olza Mendigoizalea

■ Iñaki Otsoa de Olza, 32 urteko mendigoizale iruindarra, Broad Peak mendiko gailurrera heldu zen joan den igandean. Mendiak 8.047 metro ditu, eta Pakistanen dago, Karakorum mendikatean. Broad Peak mendigoizale nafarrak azken bi urteotan igo duen bosgarren 8.000 metroko mendia da. Otsoa de Olzak lagun bat izan zuen joan den igandean gailurrerainoko bidean, Carlos Fauner, duela 32 urte Zaragozan jaioa eta egun Iruñean bizi dena. Biok Kantxenjunga mendia igotzen salatu ziren joan den hilabetean, haina eguraldi txarrak behartuta, gailurrera heldu gabe amore eman behar izan zuten. Broad Peak-en TVEko *Al filo de lo imposible* saioaren laguntza izan zuten igoera egiteko.

ahaztu gabe!



JAIAK

Irurtzun: Gaur hasi eta asteazkenera bitartean, herriko jaiak ospatuko dituzte Irurtzungo biztanleek. Arratsaldeko 18:00etan botako dute jaien hasiera iragarriko duen txupinazoa, eta 15:00etan herri bazkaria egingen dute giroten hasteko. Gaurkoan Basajaun taldeak alaituko ditu gau partean herriko txokoak.

Datozen egunetan ere musika, kirola, haurrak eta parranda izanen dira protagonista, denen gustuko ekitaldiak prestatu baitituzte. Bihar txistor jatea egingen dute goizaldeko 06:00etan, eta goiz partean, pilota eta futbola izanen dira nagusi, bai eta arratsalde partean ere. Gauean, Ekli-ipse taldearekin dantzaldia.

Igandean, meza nagusia ezezik, Dantzari Txikien Eskolak bere ikuskizuna aurkeztuko du 18:30 etan, eta 23:30etatik aurrera, rock jaialdia izanen da, Piperrak eta Txep taldeekin. Astelehenean, berri-herri kirolak eta Drindots taldearen kontzertua izanen dira eguneko egitarauaren barruan.

Asteartean, bestalde, Egan izanen da Irurtzunen. Dianak, pilota partiduak, kalejira eta gazte afaria ere egingen dituzte. Asteazkenan izanen da jaien azken eguna. Gauean, Skalariak taldeak kontzertua eskainiko du.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralerara, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia-ospetsuei elkar-riketarako.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiraleroko Txirristi-Mirristi haur-entzako saioa 12.30etan.

Ostruka: Nafarroako landetan gero eta maizago bistatzen den hegaztia

Berez Afrikakoa da, baina baserriar askoz ekin diote ekoizteari, errentagarria delakoan

Nafarroan gero eta baserriar gehiago dira ostruka hazten hasi direnak. Merkatuan aterabidea baduela eta ondorioz errentagarria dela entzun ondoren, batek baino gehiagok hona ekarri ditu Afrikako hegaztiak. Oraingoz, hasi besterik ez dira egin, eta etekinak ikusteke daude.

Irene Arizurieta / Iruñea


OSTRUKAK Nafarroara ekartzen ausartu den baserriarretako bat Bittorio Jauregi amaiurtarra da, EHNE sindikatuko langilea Elizondoko bulegoan eta Espainiako zein Kataluniako Ostruka Hazleen Elkarteko partaidea. Oraindik ostrukarik ez duen arren, prestatzen ari den proiektua ongi badao abuztuan jarriko ditu Amaiurko baserrian. Belgikan barna Namibiatik bost hirukote heldu (bi eme eta ar bat) ekarriko ditu eta emeek erruten dituzten arrautzak txitatzeke inkubadorak erosi. Lehen behiak ziren tokian orain ostrukak ibiliko ditu. Baserri ondoko lurrak erabiliko ditu ostrukak edukitzeke, bost hektarea inguru. Txitoak eta guzti, ostruka hirukoteak hektarea bat lur behar duela esaten dute, eta estu samar ibiliko bada ere hori du hasierako asmoa. Behiak errentagarriak ez zirela ikusirik, ostruken aldeko apustua egin du. «Behiak uzteko asmoa banuen, baina obra kozkorra egin behar zen. Kostua handia zen, esnekuotekin banituen arazoak, dirulaguntzarik ez zidaten ematen eta utzi egin nuen».

Jauregiren arabera, martxan jarri nahi duen asmo berriak ez dio hainbesteko inbertsioa eskatuko. Egin behar diren instalazioak, inkubadorak eta itxiturak ez dira hain garestiak. Produzitzeko prest den lau-bost urteko ostrukak 600.000 pezeta (24.000 libera) balio badu ere, errentagarria omen da. Batez beste, 60 arrautza jartzen dituzte, martxoan hasi eta urrira arte. Inkubatzen 42 egun behar dituzte eta atera eta handik egun gutxira hasten dira jaten». Jauregik dioenez, baserria errentagarria izateko urtean hogeit bat hazi nahiko lituzte.

Amaiurtarra noiz hasi zain badago ere, Iparraldeko beste herri batzuetako baserrietan badituzte ostrukak. Kiriko Oteizak 35 ostruka ditu Oronozko baserrian. Txikiak zirenean erosi zituzten eta orain hamabi hilabete dituzte. Ostruka hegazti guztietan handiena da. Helduak bi metro eta erdi eta hiru metro bitarteko altuera su eta 160 kilo pisa dezake. Hegazti lasterkari hankaluzekoak, jatorriz Afrika eta Arabiakoz izanik, eguraldi lehorra behar dute. Harrigarria bada ere,



Kiriko Oteizak hogeita hamabost ostruka ditu Oronozko baserrian.
AITOR AROZENA



Nafarroa iparraldeko giro heze eta euritsura ongi moldatu dira. «Pentsua eman eta ura bertan dutenez, ez dute lan handirik ematen. Dena den, etxetik kanpo daude eta adi egon behar da. Lekua behar dute lasterka egiteko eta bero mantentzeko ez dute busti behar», dio Juana Mari Iribarrenek, Oteizaren emazteak. Oteizatarrak produkzio txikia badute ere, bada granja handiagok jarri dituenik. Estatu Batuetako eta Europako ostruka granjak ikusi eta gero, Manuel Morras urantziarra joan den abenduan hasi zen ostrukekin lanean. Belgikatik 90 ostruka ekarri zituen, eta egun 85 ostruka heldu ditu eta 600 txito. «Aurten euri asko egin duen arren, Urantzia berez lehorra da eta ongi egokitu dira. Arazoak, batez ere, inkubatzeko sortzen dira. % 30etik beherako hezetasuna behar dute txitatzeke eta txitoa behar den bezala ateratzeko; hori dela eta, tresna bereziak erabili behar izan ditugu. Dena den, animalia gogorra da ostruka, 25 gradu zero azpitik eta 50 zero gainetik jasateko gauza baita».

Dena du baliagarri • Ostruka da hegazti guztietan handiena: helduak bi metro eta erdi eta hiru metro bitarteko altuera du eta 160 kilo pisa dezake. Hegazti lasterkari hankaluzeko Afrika eta Arabiakoz dira jatorriz eta Jauregik dioenez dena dute baliagarri. «Larrua ona du, balore handikoa, arropak edo oinetakoak egiteko erabiltzen da. Lu-

Gora doan negozioa

NAFARROAN gero eta gehiago dira ostruka ekoizten duten etxaldeak. Jadanik badira sei: Beran, Gelbentzun, Altsasun, Funesen eta Oronozen. Dena den, horien artean bereizketa egin behar da: batzuek baserriko ekonomia osatzeko jarri dituzte, eta besteek hori dute bizimodu. Hasi berriak izanik errentagarriak izanen diren esatea zaila bada ere, Nafarroan gora doaz. Ekoizleen artean, Manuel Morras urantziarraren granja da handiena, eta esperientzia gehien duena. Hark dioenez, lan handia ematen duten arren negozioa ongi doa. «Granjan egunero lau lagun aritzen gara lanean ordu askoz. Hala ere pozik gaude. Otsailan hasi ginen txitoak jartzen eta egun 600 ditugu. Urte bukaerarako 1.500 txito inguru izateko itzaropena dugu».

Produktzio biltegiez gain, Nafarroan bada Afrikatik —Namibiatik hain zuzen ere— Europa osora ostrukak inportatzeaz arduratzen denik.

Martin Eliak La Perdigarria izeneko biltegia du Zizur Txikian, eta Gasteizko aireportutik barna ostruka txitoak ekartzen ditu, Namibiatik. «Behin hemen direla nire granjan edukitzen ditut gehienez

hiru hilabete eta hemengo ganaduzaleei saltzen dizkiek. Hiru hilabeteko txitoak 50.000 pezeta (2.000 libera) balio du, eta ugalketarako hirukoteak —bi eme eta ar bat— berrogeita hamar arrautzatik gora jarriko dituzten garantiarekin. 1.600.000 pezeta (64.000 libera). Aurten 26.000 txito ekarriko ditut Europa osorako».

mak ere aprobetxatzen dira zamarrek egiteko». Kanpoaldea ezezik, haragi ere ona eta samurra omen du ostrukak. «Oso haragi samurra da, behikia baino gorriagoa eta gantz gutxikoa. Jendeak idi haragiaren zapora duela dio, gozoa da». Europako beste herrialde batzuetan, Estatu Batuetan eta Afrikan nahiko hedatua badago ere, hemen hasi besterik ez dira egin. Herrialdean ostruken sal-erosketa da nagusi. Asko oraindik muntatzen ari dira eta hazten ari denari erosten zaio. Merkatua badu baina hor sartzeko kantitate izugarriak behar dira eta. Horregatik, ekoizle txikiak elkartu egiten dira. «Barnatzaileekin harremanetan jarri bagara ere, oraingoz ez dugunez hil zain gaude. Dena den, Nafarroan eta Errioxan granjak ditugunok kooperatiba bat egitea pentsatzen ari gara produktua merkatuzteko», dio Morrarek. Nolanahi ere, jateke batzuetan dasta daiteke ostruka haragia, eta dendetan 3.500-5.000 pezeta bitarteko balioa du. Halaber, Urantziaren biltegia egiteko asmoa dute, Gironan, Toledon eta Madrilgo bakarrik baitaude Espainian. X

Xanti Begiristain

Errepikapenen garaia

■ Bai jaun-andreak, ohikoa den bezala, uda honetan ere EITBkoak jarraitzen ari dira politika bera, hau da, irrati-telebisten programazioa betetzen ari dira modu erraz eta merke batez, baina jakina, aldi berean era aspergarri batez.

Nik badakit EITBko arduradunak ez direla oroimen gabeak, eta jakinaren gainean daudela ikus-entzuleok ere badugula oroimena, baina hala eta guztiz ere jokatzeko alderantziz balitz bezala.

Begira ezazue telebista eta irrati euskaraz ikusi eta entzun nahi ditugunok zer-nolako sofrikarioak topatzen ditugun sarri askotan. Alde batetik, Euskal Herrian bai baina Euskal Autonomi Elkartetik kanpo bizi garenok maiz jasan behar izaten ditugu EITB ofizial eta legezkoa ez

ikasgaia, badaezpada ere, erreparatzeko. Jaiak 97 egun hartan bi aldiz eman zuten eta halaxe jarraitzen dute. Goenkale-ri dagokionez, bezperakoa erreplikatu zuten, egun hartakoa eman zuten, bai eta aurreko urteko lau atal gehiago ere (azken atal horiek lehenago jarri dituzte gutxienez bost edo sei aldiz). *Bi eta bat* telesail arrakastatsua ere erreplikatu zuten eta horrelaxe jarraitzen dute, baina ez ahaztu aurreko urteetan ere atal bakoitza bota dutela gutxienez laupabost aldiz. *Txiskola* ere erreplikaturik eman zuten eta berdin jarraitzen dute (*Txiskola* programa hauek 96-97 ikasturtean eman dituzte gutxienez bizpahiru aldiz bakoitza). *Mitsuaki Iwago*. *Naturaz* dokumentala jarri zuten, halaber, eta litekeena da hori ere erreplikapena izatea.



izatearen ondorioak (kalitate txarra irudian, soinu, etenaldiak behin baino gehiagotan), eta bestetik, erreplikapenen kalbarioa. Azkeneko hau urte osoan zehar, baina orain, uda garaian, areagotzen dute.

Jarraian saiatuko naiz adibide batzuk jartzen, ez guztiak, luzeegi joko lukeelako, baina bai bakar batzuk behinik behin, ideia argiagotzeko.

Hona hemen. Uztaillaren lehenengo ostiralean, esate baterako, ETB1eko programazioa 08:30etan hasi zen eta goizaldeko 04:35etan bukatu. Egun horretan *Kili-kolo* bi aldiz eman zuten (bat seguru erreplikatu, eta bestea ere bai agian), *Euskaraokea* behin jarri zuten baina zalantzarik gabe erreplikatu izanen zen, zeren eta finala ordurako egina baitzen. *Lurraren amasa* dokumentala eta *Berriketa gutxi* ere baliteke erreplikapenak izatea, eta *Harry eta Hendersondarrak*, ziur. *Parker Lewisek ez du sekula galtzen* telesail kaskarra aurreko urteetan erreplikatu zuten nazkatu arte, eta orain berriro ere ematen ari dira, egunean, bi aldiz,

Gauza bera gertatzen da *Fernando Amezketa*rekin, lepoa eginen nuke erreplikatu zela.

Horiexek guztiak erreplikatu zituzten egun berean. Joera berdina da eta horrelaxe iraunen dute uda osoan seguru asko. Hala ere, baliteke oraindik egun hartan bertan (eta gainerakoetan ere) programa gehiago erreplikatu izana, baina zaila da dena kontrolatzea.

ETB2an egun hartantxe eman zituzten, besteak beste, hiru filme; onak edo txarrak, ez dakit. ETB1ean, ezta bakarria ere. Gehienez astean bat edo bi; gainera, gehienak kaskarrak edota lauzpabost aldiz erreplikatuak. Uztaillan bertan entzun nion Eudurne Ormazabal honako hau Euskadi Irratian: «Euskaldunok oraindik ez dugu hartu ohiturarik filmeak eta zinea euskaraz ikusteko». Eta nik pentsatu nuen: «Jakina! Daukagun aukera zabalarekin nola ba?»

Ez aldatzeko, Euskadi Irratian ere irrati-nobela bat entzun dut (zatitxo bat) gutxienez, bosgarren aldiz. Bukatzeko, erreplikapenak penagarriak dira. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jose Joakin Montoro Sagasti

■ Iruñean sortua eta zendua izan arren, Jose Joakin Montoro Sagasti legegizona tuterartzat hartu beharrean gaude. 1898.eko martxoaren 29an jaio zen Nafarroako hiriburuan, eta Erberetan zuten askaziengana abiatu, bertan ikasi zuten lagundiaren ikastetxean Madrileran joan artio bederen, non zuzenbidea burutu zuen. Filosofia ere ikasi zuen, Salamancan baina. Abokatuia izanik, Iruñean nahiz Tuteran irekiak zituen bulegoak eta zuzenbideaz tajutu zituen bere lehenbiziko idazkiak, alabaina, gehien interesatzen zaigun Montororen langintza literarioa ez da ogibideari hurbiletik jarraitzen diona, baizik eta honetatik larregi hastanduz, Tuterako historia urruna berreskuratzeko ahaleginetan largatu ziguna. Santa Anako festak zirela eta, mende honen erdialdean Erriberako hiriburuan argitaratzen zen udal fanzinean genuen Montoro kolaboratzaile finkoak zirenen artean, izen hantuko sinadurekin batera, Jose Maria Iribarren batena, besteak beste, aipatzearren. Gure Montoro Sagastik ere bere koloreetako arkatzak dantzarazi zituen orrialde haietan, eta arabiar kutsuko hainbat idazki opari zigan, marrazki eta guzti. Ipar-Afrikako artea nahiz Aragoiko tankera mudejarra oinarri harturik. Nonbait festetako urtekarian agerturikoen bilduma agertarazteko asmotan ibili zen Montoro. *Algarabís Tutills* goiburupuan, baina tamalez ez zen horrela gertatu, gutxi izan baitziren kalera-tutakoak bide, edota apika, koloreen zein tipografia bereziaren kariaz, edizio garestiegia suertatuko litzaiokeelako. Edozein modutan ere, agertu zirenen zerrenda kamutsa jarraian honako genuke. 1951.eko zenbakian *Así habló Abu-Omayya, juntero de la Medina de Tudela, a Inn-Hayyan* izenburukoa dugu. Hurrengo 1952. urteko alekian gai zinez guritsua ekarri zigun: *Cuándo, para qué y por quién fue fundada Tudela*, eta Montororen eleak gaingiroki bertaratu: «Entre los años 180 a 190 de la hégira de Mahoma fue cuando el gran paladín del califato de Córdoba, el renegado Amrus-al-Lleridi fundó la Medinat Totila en la desembocadura del Keiles». 1953.eko edizioan Abuchfar-Admed-Abenhoraira-el-Tutilli deitu Tuterako itsuak sortu bertsoen berri eman zuten, baita Damaskon ber urtean aurkitu kantutegiarena ere, Ali-Sami-el-Nashar irakasle egipziarrarekin posta truke naraoren emaitzat hartu beharko genukeena, Montorok berak zioenari segituz. 1954.eko zenbakian hemeretzi ahapaldietako erromantze berezia eskeini zigan, hau da, *De qué modo y posible manera llegaron las primeras semillas de espárgagos desde Bagdad a Tudela*: «Cierta día de un mayo lejano del año 800 y pico, teniendo el kalat-Tutilla Yusuf-Ben-Amrus, brotaron mil tallos de dulce sabor en la esparraguera que por primera vez sembrara en Tudela su Wali Amrus». Ez dadila inor tronpatu, bada, Montororen asmo historikoak aisa garaitzen zituen sena literarioa finduak: «En Tudela de Navarra a 31 de mayo de 1954, pagándose el kilo de los de 14 kilates a ocho durazos hasta que el Wali o el Kadi ponga a ello freno o fin». 1955.ean, eta ordurarteko arabiar giroari estuki atxekirik, Al-Munim-al-Himiyari ertareko geografialariak jaso ipuina ekarri zigan, *Aldraquería de la mujer barbuda* izenburu bitxiarekin, 1010.eko Tuteran kokaturik. 1956.eko argitalpenean *Hubo en Tudela un santón* iruzkina ekarri zigan, eta 1959.ean berriz *La ceca de Tudela o el Boabdil tudelano*, Mondir-Ben-Sulaiman Tutilliko taifa-buruak 1045-1050 bitarte laburrean txanpondu soseki buruzkoa.

Festetako argitalpenerako onduez gainera Montoro Sagasti Tuterako Navarra astekariaren noiz behinkako kolaboratzailea izan zen. Hauxe, 1932-1935 bitarteko laurtekoan argitara emaniko aldizkari independentea dugu, nahiz bultza laburreko hainbat zenbakitan *Semanario Católico de Acción* segida izukorra goiburuekotzat agertu. Honetan, bere izenarekin sinatu gutunez lekot, eta betiere Zierzoko mendiak ustiatzeko tuterarrek gainontzeko eriberatarren gainetik zituzten eskubideak aldarrikatzaile, *Kaskotazos en la kresta izeneko* saila satiriko eman zuten 1933.eko urriaren 2az geroztik. Honetan ezizen ugari erabili zituen: Perroganau, Guau, Chilindron, Kas-kin, Gora ta gora... Estatutoari buruzko bozka izan zenean, astekari hau alde agertu zen (31 zbk., 1932-vi-18), eta Montoro berak ere marrazkiren batean Biotza-Ona izengoitiaz sinatu zuten (61 zbk., 1933.vii.8), baina 119. zenbakian jada Juan Español izenekoak abertzaletasunari aitzit gogorki oldartu zion 1935.ean. Montororen hizkera eztenkari, zorrotz eta auskitzailearen erudugarri bihoa datorren pasarte: «Esto se toca con zambomba en una corraliza que yo sé, por un radical socialista, un republicano independiente con gafas y bigotito, y un abertzale-napar-buru bastar esquerrizarri erriber muskarizarri. Gora euskadi con aquello que decía el manifiesto: aspiramos a que el producto integro de la tierra sea para el que la cultiva».

Marraskilari hagitz ona genuen, Iribarren berak zerabilzkien eite bertsuko erudigile, eta Flores Kaperotxipik berak aipatu zuten bere Arte vasco liburuan. Orduko hamaika argitalpenetan agertarazi zituen bere marrazkiak, besteak beste, Kandido Testaut Makaila Arako-k, Iruñerriko hizkeraz tajaturiko elkarrizketa entzutetsuen egile famatu huraxek, idatzi *Juanito y Perico* ipuinean —Iruñean, 1925ean, zuhaitzaren eguna zela eta—, edota Alberto Pelaiarearen ekoizpenetan: *San Miguel del Aralar* antzezpenean —Iruñean, 1925.ean— eta *Antología poética* bertso bilduman —Iruñeko Piper Lehorraren Kofradia argitalpenetan ere bere marrazkiak ageri zituen, esaterako Blas Alegria lakuntzarrek ondu *Aña Mari* 1928.eko misiozko antzezpenean. Montoro Sagastik bere azken urteak nahikoa isilean igaro zituen, eta 1976.eko maiatzaren 25ean Iruñean hil zitzaigun gorago esan bezala. ■

Diabetikoentzako udalekua,
Garesen

Heziketa, funtsezkoa

dute Garesko udalekuan. Eta hori, medikuntza-taldearen ardurua da. «Urte osoan zehar jarraitu beharko genukeen dieta ematen digute hemen egoten garen hamabost egunotan», erran zizun Javi Hernández begiraleak. Gainera, ohi baino kirol gehiago egiten dute, eta hori guztia dela eta, normalean baino intsulina gutxiago behar izaten dute neska-mutilek.

«Horren ondorioz, hipogluzemiak ohi baino malzago gertatzen dira lehen egunetan», azaldu zizun Txaro Garcia erizainak. Ramon Arrieta, Espe Eiaralar eta Miren Intxausperekin batera, erizain taldea osatzen du Txaro Garciak. Eli Bladurni, berriz, udalekuko medikua da. Bladurnik, hain zuzen, neska-mutil diabetikoen bizimoduari buruzko hainbat zehaztasun eman zizun, eta halaber, hainbat uste ustel argitu.

Lehenik eta behin, diabetikoak pertsona bitxiak balira bezala ez direla tratatu behar nabarmendu nahi izan zuen udalekuko medikuak. «Finean, beste edozeinek jan dezakeena jan dezake diabetikoak ere, baina zenbait arau bete».

Azken aldirian hainbat dendatan aurki daitezkeen eta diabetikoek ustez jan ditzaketen zenbait produkturi buruz mintzatu zitzaizun Bladurni, halaber, eta gogor salatu zituen: «Glukosarik ez badute ere, diabetikoen azukrea igotzen duten beste gauza batzuk badituzte. Eta oso garestiak dira, gainera».

«Hagitz ongi ulertzen dugu

elkar» • Garesko udalekuan, hamabost egun gaixotasun bera duten beste neska-mutilekin pasatzera joan diren diabetikoak dira benetako protagonista. Eta Eli Bladurni medikuak azpimarratu duenez, haien bizimoduari arreta handiagoa eskaini beharko genioke denek, haiek dituzten ohitura osasungarriak hartzeko. Garesen dago egunotan, adibidez, Ainhoa Ortega Berako nafarra. Abuztuaren 29an 15 urte beteko ditu, eta 7 zituenetik da diabetikoa. Diabetikoentzako udalekuan parte hartzen duen bosgarren aldia da aurtengoa Ainhoarentzat. «Lehenengo urtean gurasoek bidali ninduten, intsulina jartzen ikasteko, ez bainekien flaskotik hartzen. Azken urteetan, berriz, oso ongi pasatzen dudalako etorri naiz, eta, gainera, urtero ikasten dugu zerbait».

Ainhoa ongi daki diabetesa zer den, eta horregatik, oso ongi zaintzen du bere burua. Hala eta guztiz ere, azken aldirian oso altua du azukrea beti. Hori dela eta, Garesen dieta txikia jarri diotela aipatu digu, hau da, «hamaiketakoan eta askarian fruta baino ez dut hartzen, eta bazkari eta afarian, berriz, besteek baino ogi gutxiago». Eli Bladurnik azpimarratu duenez, adinak zerikusirik handia du Ainhoa patratzen dituen gora-beherekin, «pubertaroan zaila baita azukrea kontrolatzea».

Ainhoa diabetikoentzako ez diren beste udalekuan ibiltza da, eta erran digunez, noiz ez du arazorik izan. Hala ere, diabeti-

GARESKO udalekuan zortzi eta hamasei urte bitarteko haur eta gazteak bildu dira egunotan. Gehienen helburu nagusia hamabost egunetan ahalik eta hobekien pasatzea eta ahalik eta lagun gehien ezagutzea da, baina udalekuak beste zerbait eskaintzen die, hau da, duten gaixotasuna hobeki ulertzeko eta ezagutzeko aukera. Horretarako, astelehenetik ostiralera ordubeteko klasea eskaintzen diete erizainek eta medikuak. Ordu horretan, diabeteari buruzko argibideak ematen dizkiete: esate baterako, gaixotasun horrek izan ditzakeen ondorioak, hipergluzemia eta hipogluzemia zer diren, kirola eta dietaren garrantzia, bakoitzak bere burua kontrolatzeko zer egin behar duen eta beste azalitzen dizkiete.

Aurten hainbat berrikuntza izan dira, gainera.

Alde batetik, sexualitateari buruzko klasea izan dute neska-mutilek, eta bestetik, ordenadorearen bidez, diabeteari buruzko programak ezagutu dituzte. «Programa horietan, normalean diabetikoak eskuz jasotzen dituen hainbat datu ordenadorean gorde ditzake, eta ondoren, hainbat estatistika atera. Jakin dezake, adibidez, astean zein izan duen egunik txarrena edo hobereana, noiz izan duen azukrea altuen edo baxuen, zein den bere batez bestekoa, eta abar», azaldu digu Eli Bladurnik. Medikua, halaber, programa horien bidez diabetikoak bere burua hobeki kontrola dezakeela azpimarratu du. «eta hori da, finean, garrantzitsua».

Bladurniren iritziz, «autokontrola da benetako giltzarria, autokontrolaren bidez diabetikoak autonomia handiagoa

lortzen baitu. Udalekuko klaseen bidez euren burua ezagutzen ikasten dute haurrek, bai eta erabakiak hartzen ere. Finean, duten arazoa mantelatzeko ikasten dute».

Horregatik, Garesko udalekuko kide guztiek garrantzi handia ematen diote hezkuntza diabetologikoari. «Funtsezkoa da», aipatu du Eli Bladurnik. Medikua erabiltzeaz, autokontrola heziketa on baten ondorioa da, eta autokontrolaren bidez diabetekoak luzarora ekar ditzakeen arazo asko eki-

Eli Bladurni:
«Autokontrola da benetako giltzarria, autokontrolaren bidez autonomia handiagoa lortzen baitute diabetikoek»

din daitezke. «Ez dugu ahaztu behar diabetekoak kostu handia dakarrela erarentzat, gizartearentzat, eta agintariarentzat ere bai. Eta kostu horren zati handi bat aurreztu daiteke heziketaren eta autokontrolaren bidez».

Agintariak, ordea, ez dira oraindik horretaz jabetu, Bladurnik nabarmendu duenez: «Halako udalekuak antolatzeke ere zailtasun handiak ditugu oraindik. Heziketa diabetologikoan aditu asko dago, baina haiek dira halako ekimenen berri jasotzen duten azkenak».

Heziketak ezezik, diabetikoen etorkizunak ere kezkatzen du Eli Bladurni. Gaur egun, xiringen ordezkarik ez dago intsulina hartzeko, baina badira zenbait aurrerapen. Etengabe ari dira ikertzen, gainera. Udalekuko medikuaren ustez, aurrerapenik garrantzi-

tsuena gaixotasuna atera aurretik diagnostikatu ahal izatea da: «Pankreasa gaixotzen hasi da baina oraindik intsulina produzitzen du, beraz, tratamendu baten bidez ahalik eta intsulina gehien ekoiztea lortzen da, hau da, erabat gaixotu aurretiko denbora luzatzen da».

Pankreasa aldatzeari buruz hitz egiten hasi da, baina, Bladurnik dioenez, «oraindik ez dago inolako emaitzarik». Azkenik, intsulinaren analogoak aipatu ditu medikuak: «Azkar eragiten dute eta intsulinarekin antz handia dute. Diabetikoa ez den pertsona baten pankreasa, jaten duen bakoitzean produzitzen du intsulina, behar adina. Analoagoak hori bera egiten saiatzen dira. Oso garrantzitsua da, lortuz gero, jaten duen unean jarriko lukeelako txertoa diabetikoak».



Igerilekuan ongi pasatzeko aukera paregabea dute Garesko udalekukoak.

JAGOBA MANTEROLA

koentzako udalekuan denek hagitz ongi ulertzen dutela elkar azpimarratu du Berakoak: «Denak baikara berdinak. Ikastola-koekin joaten naizenean, ordea, azukreak behera egin eta hipogluzemia badut, lagunek ez dute ulertzen zer gertatzen zaidan».

Garesen Tolosako Iker aurkitu genuen, 8 urteko mutiko alaita. Lehen aldia da diabetikoentzako

udaleku batean parte hartzen duela, baina esan zigunez, oso ongi pasatzen ari da. Goizero, eguerdiero eta gauero hartu behar du intsulina lkerrek: «Nik neuk jartzen dut», esan zigun, harro.

Azkoitiko Garbiñe da Garesen diren 33 neska-mutiletatik beste bat. Gazteagoa dirudien arren, 14 urte ditu, eta bosgarren urtea du aurten udalekuan. Gehien

gustatzen zaiona zer den galdetu genion eta zalantzarik gabe erantzun zigun: «Zapatuko gauak, kalera irteten garelako». Begiraleekin ongi moldatzen dela esan zigun, halaber, «nahiz eta batzuetan oso dibertigarriak ez izan». Ainhoa bezala, azukreakin arazoak ditu Garbiñek; arazoak, ordea, ezberdina da, diabetesa ez baita Garbiñek duen

gaitz bakarra. Hala ere, udalekura joateak on egiten diola esan digu. «Hemen errazagoa baita azukrea kontrolatzea. Etxean baino kirol gehiago egiten dut, adibidez», gaineratu zuen. Garbiñek irribarre eder batekin esan zigun agur, eta askariko ogitar-tekoa eskuan zuela alde egin zuela, igerilekurantz, beste neska-mutilekin bat egiteko. X

◆ Mikel Aizpuru ◆ UEUko zuzendaria

s o s l a i a

«Udako izaera galdu nahi dugu»

A stelehenean UEUko 25. udako ikastaroak jarri ziren abian, Larraona ikastetxean hasiera ekitaldia egin ondoren. Aurten, dena den, bi egoitza izanen ditu UEUk, Iturrana Institutuan eginen baitituzte ikastaroak. Denetara, 29 ikastaro izanen dira hilaren 26ra arte, jakintza arlo ezberdinetakoak. Joan den larunbatera arte ikastaroak Baionan egin ondoren, beraz, Iruñeak hartu du lekuak.

Edurne Elizondo / Iruñea


SANFERMINETAKO azken egunean, uztailaren 14an, iritsi zen UEU Iruñera, eta biharamunean, udako ikastaroen ekitaldi berriari buruz Mikel Aizpuru zuzendariarekin mintzatu ginen.

■ **Baionako ikastaroak amaitu ondoren hasi dira Iruñekoak. Baionakoei buruz balantze ona egin duzue, baina zuen kezken artean, Iparraldeko jendeak ez duela gehiegi parte hartzen aipatu duzue. Zer dela eta?**

Iparraldeko jende gutxi etorri da, bai. Ostirala eta larunbata eman genuen kontu hori aztertzen, eta zer egin erabakitzen. Aipatu behar da, batetik, Iparraldeko ikastaro batzuk izan direla irakaskuntza munduko jendearentzat, eta jende horrekin hitz egin eta aztertu nahi dugu zer punturaino aldatu behar den egitura. Azken finean, badira hamabi urte horrelako ikastaroak antolatzen hasi ginena, eta, agian, eredu ahitu egin da. Bestetik, Iparraldean ikasle asko dago, eta horiengana jo behar dugu, haien arreta erakartzeko.

■ **UEUko 25. ikastaroak hasi dira aste honetan Iruñean. 25. urteurrena bete ondoren, zuen asmoa bide beretik jarraitzea da, edo bide berria jorratu nahi duzue?**

UEUko ibilbideari buruz orain dela bi urte egin genuen gogoeta



Mikel Aizpuru, UEUko zuzendaria, elkarrizketako une batean.

JAGOBA MANTEROLA

gure kongresuan. Orduan finkatu zen zein zen gure helburu nagusia, eta hori zen euskal unibertsitatea sortzen laguntzea, eta horretarako zer bitarteko jarri behar ziren aztertzea. Bitarteko horien artean daude ikastaroak, liburugintza eta material prestaketa. Gainera, hasi gara pixkanaka lantzen urtean egin daitezkeen ikastaroak, eta hurrengo lana da gizartearen zabaltzea euskal unibertsitatearen premia. Orain arte gure ekitaldi nagusia udako ikastaroa izan da, eta orain beste bi lerro horiek sakondu nahi ditugu ere bai.

■ **Zure zuzendaritzapean egiten diren bigarren ikastaroak dira aurtengoak. Iazko esperientziak zer irakatsi dizu?**

Egia erran, nahiz eta zuzendari laztik izan, niretzat aurtengoa ha-

mabigarren UEU da. Lau urtez izan naiz sailburu, eta beste lau eman ditut talde eragilean. Aldaketa, beraz, ez da hainbestekoa izan, gauza gehienak aurretik ezagutzen baitituzte. Noski, orain naiz irudi nagusia, baina UEU ez doa ondo zuzendariak esaten duela, eta espero dut, halaber, gaizki ez joatea zuzendariak egiten duenagatik. Azken finean, UEU talde lana da.

■ **Aurtengo ikastaroak dagokionez, zer espero duzue?**

Urtero bezala, ikastaro berriak daude. Bestalde, aurten, zerbaki magikoa pasatuko dugu, mila lagun baino gehiago bilduko baitu UEUk Baiona eta Iruñeko ikastaroak kontuan hartuta. Matrikulazio epea zabaldu zenean ziur nintzen ikasle kopuru handia izanen genuela. Gero, matrikula egiteko ordua iritsi zenean, agian asmo hori ez genuela betekiko uste nuen. Baina orain badakigu baietz. Eta uste dut kopuru hori nahikoa dela ditugun baliabideak kontuan hartuz, ko-

puru hori gaintzea neurri batean arriskutsua izan baitaiteke, UEUren izaera bera alda daiteke. Ikusten ari gara jada bazkaltzeko eta ekintza osagarrietan parte hartzeko, askotan, ez dagoela lekurik, jendea gero eta ezzagunagoa da, ez dago hain artean hainbesteko harremanik. Zenbat eta ikasle gehiago eduki, gainera, gure zorra gero eta handiagoa izanen da, beraz, arrakastak porrotera eraman gaitzake.

■ **Gizartearen erantzuna, beraz, ona da. Erakundeen jarrerarekin, ordea, ez zaudete horren pozik, eta aurtengo ikastaroen aurkezpenaren erakundeen esker hobe eskatu zenuten berriro ere.**

Nafarroan, egia erran, egoera ez da hain txarra, Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena baitauekagu, eta horren arabera, hiru milioi pezeta jasotzen dugu, bai eta ekitaldi osagarrietarako beste milioi eta erdi ere. Iruñeko Udalarekin ere harreman ona dugu.

Gabirian (Gipuzkoa) jaioa da UEUko zuzendari Mikel Aizpuru. Kargua orain dela bi urte hartu zuen, Kepa Altonagak zuzendaritza utzi zuenean. Talde Eragileko gainontzeko kideek haren izena proposatu zuten, eta Aizpuru-rik baietz esan zuen.

*

Zuzendari lanean bigarren urtea du, beraz, aurtengoa, baina Larraona ikastetxea lehenagotik ezagutzen du, UEUra orain dela hamabi urte ailegatu baitzen. Historia saileko buru izan zen lau urtez Mikel Aizpuru, hain zuzen ere.

*

UEUko Talde Eragilean, halaber, beste lau urte eman ditu zuzendariak, zuzendaritzara ailegatu arte. Hilaren 26ra bitartean, Larraona eta Iturrana institutuaren artean emanen ditu eguneko orduak.

Guretzat inportanteena hitzarmen hori edukitzea da, badakigulako urtero diru hori izanen dugula. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, dirulaguntza handiagoa da, baina une honetan, uztailaren 15ean, oraindik ez dakigu dirurik jasoko dugun, eta jasoz gero, zenbat izango den.

■ **25. urteurrena betetzean, urte horietako lanari buruz gogoeta eginez, zer azpimarratuko zenuke, zein da UEUren lorpenik handiena, zure ustez? Eta zeintzuk etorkizunerako erronkak?**

Kontu zaharra da, baina, nire ustez, garrantzitsua da UEUk erakutsi duela euskara edozein gai zientifiko lantzeko erabil daitekeela. Eta etorkizunari begira, uste dut gure erronkarik nagusia dela egonkortasun ekonomikoa. Halaber, udako izaera hori galdu nahi dugu, hau da, gure ekintzak urte osora zabaldu. Orain, oso hori apalean lantzen dugu alor hori, baina indartu nahi dugu. x

«Mila ikasletik gora izatea arriskutsua izan daiteke, arrakastak porrotera eraman gaitzake»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

Bizien infernua ez da etortzeko den zerbait; ba da bat, dagoeneko hemen denda, egunero bizi garen infernua, elkarrekin sortzen duguna. Hori ez sufritzeko bi modu daude.

Lehenbizikoa erreza da askorentzat: Hura onartzea eta haren zati bihurtzea, infernu bera ez ikusteraino.

Bigarrena arriskutsua da eta etengabeko arreta eta ikaskuntza eskatzen ditu: Infernuaren erdian nor eta zer ez den bilatu eta jakitea, eta hari lekua egin eta iraunaraztea.

